

IKERLARIEN AURREIKUSPENAK

- a. Litekeena da etorkizunean haurrak genetikoki moldatuak izatea.
- b. Baliteke bizitzeko bizi-baldintzak askoz okerragoak izatea.
- c. Baliteke espazioa konkistatzea, eta hango bizi-baldintzek gizakiongan mutazioak eragitea.
- d. Bizimodu aldaketak gizakion fisikoan eragina izan lezake.

2. zatia

Ingurumenaren aldaketari aurre egiteko gauza izango gara, baina, horretarako, bizimoduan aldaketa batzuk egin beharko ditugu bizi-baldintza berrietara egokitzeko. Batetik, elikadura hobetuko dugu: barazkiak eta fruituak nagusituko dira dietan. Horrez gain, kirol gehiago egingo dugu. Ondorioz, baliteke fisikoki aldaketak izatea: burua handituko zaigu, garaiagoak eta sendoagoak izango gara...